

PRENTSA OHARRA

BAZTERKERIA ETA GARAPEN SOZIALARI BURUZKO EUSKADIKO 'FOESSA' TXOSTENAREN AURKEZPENA **PRESENTACIÓN DEL INFORME 'FOESSA' DE EUSKADI** **SOBRE EXCLUSIÓN Y DESARROLLO SOCIAL**

Cáritas Euskadik gaur aurkeztutako erkidego mailako “FOESSA Txostenaren” arabera,

Euskaldunen %45,3 babesgabetasun egoeran dago


Txosten horren beraren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren %16,6 bazterkeria egoeran dago.

Bilbo, 2014ko azaroaren 6a.- Cáritas Euskadik jendaurrean aurkeztu du gaur FOESSA Fundazioak landutako txostena, “Euskadiko bazterkeria eta garapen sozialari” buruzkoa. 2013an Integrazio eta Beharrian sozialei buruzko Inkestetan jasotako emaitzetan oinarritu dira batez ere.

FOESSA gizarte-ikerketak eta soziologia aplikatuko ikerketak sustatzen dituen fundazioa da. Aurten 50 urte bete ditu eta Estatu mailako bazterkeria eta garapen sozialari buruzko VII. Txostena aurkeztu du. Era berean, Cáritas Euskadik hala eskatuta, FOESSA Fundazioak Euskadiko egoerarako lehenengo txosten bereizi eta espezifikoa egin du.

Txosten horretan gizarte-bazterkeria aztertu da, bazterkeria mota horri buruzko 35 adierazleren bidez sortutako indize sintetiko bat oinarri hartuta (ISES), . Proposamen hori bat dator gizarte-bazterkeriaren kontzeptzioarekin, egitura, dimentsio aniztasun, prozesu eta dinamikotasunari dagokionez. 35 adierazle horien bidez dimentsio ezberdinak estaltzen dira, bai ardatz ekonomikokoak (hala nola produkzioan eta produktu sozialaren banaketan parte-hartze eskasa), baita ardatz politikokoak ere (hala nola parte-hartze politiko eskasa eta gizarte-eskubideak egikaritzeko zailtasunak: Hezkuntza, etxebizitza eta osasuna), eta lotura sozialei dagozkienak (harreman gatazkatsu eta gizarte-isolamendu gisa adierazten direnak).


Horrela izanik, Euskadiko FOESSA txostenari esker Euskadiko bazterkeria eta garapen sozialaren egoera hurbilagotik ezagutu dezakegu; gizarte-bazterkeria eta integrazio-mailak ezagutzeko aukera daukagu; gizarte-bazterkeriaren profilak identifikatu eta karakterizatu ditzakegu, eta azkenik, euskal gizartearen zailtasun nagusiak zeintzuk diren antzeman dezakegu.



Euskal herritarren %83,4 ez dago gizarte-bazterkeria

egoeran: Txostenaren arabera, euskal herritarren %83,4 erabat integratuta dago (%38,1ek ez dauka 35 adierazle horietako bat ere ez), edo modu prekarioan dago integratuta (Gizarte-babesgabetasunak Euskadiko herritarren %45,3ri eragiten die). Aldiz, %16,6 gizarte-bazterkeria egoeran daude (%11,1 tarteko bazterkeria egoeran eta %5,2 bazterkeria latzean).


Estatuko gainerako lekuekin alderatuta, Euskadin tarteko bazterkeriak eta bazterkeria latzak herritar gutxiagori eragiten die (%16,4 %25,1en aurrean) eta babesgabetasuna eta erabateko gizarteratzea hedatuago daude (%83,4 %74,9ren aurrean). Hala ere, Euskadin 138.000 familia gora daude (360.000 pertsona inguru) bazterkeria prozesuen mende (herritarren %16,6). Horietatik 46.000 familia (gutxi gora behera 113.000 pertsona) bazterkeria latzean daude.



Arazoek ez diete berdin eragiten herritar guztiei

Enplegua, etxebizitza eta osasuna dira Euskadiko herritarrei gehien eragiten dieten faktoreak, bereziki bazterkeria egoeran edo bazterkeria egoera larrian dauden familiei.

Gatazka sozialaren dimentsioak modu adierazgarrian eragiten die bazterkeria edo bazterkeria egoera larrian dauden etxeei. Bereiziki aipatu behar da nola eragiten dien gizarte-isolamenduak bazterkeria egoera latzean dauden pertsonen (laguntzarik ez duten pertsonak edo harremanetan arazoak dituztenak). Kontsumo-bazterkeria (pobrezia) nabarmen txikiagoa da Euskadin, baina pobrezia latzaren kasuak handitzen ari dira.



Guzti horrekin, hezkuntza arloa da egoera onenean dagoena. Ez dago bazterkeria esanguratsurik hezkuntza-arloan, eta faktore horrek gizarte-bazterkeria latza jasaten duten familiengan duen eragina baxuagoa da.


Bazterkeria neurri handiagoan jasaten duten familiak:

- Pobrezia edo pobrezia latza bizi dutenak
- Atzerritarren bat etxean daukatenak
- Guraso bakarreko etxeak
- Langabezia kasuren bat dagoen edo lan-jarduera gutxi daukaten familiak.
- Urritasuna duen kideren bat daukaten familiak.

Bestalde, Euskadiko gizarte-bazterkeria egoera larrienak biztanle gehien dituzten guneeetan ematen dira.

Ondorioak:


Euskadiko herritar kopurua apurka-apurka haziz joan da azken urteetan, baina 2013tik aurrera jaisten hasi zen berriz. Euskadiko biztanleria zaharra da, hazkunde naturala baxua edo oso baxua da. Krisi ekonomikoak jaiotza-tasa geratzea edota jaistea ere ekarri du, eta migrazio-saldoa negatiboa izatea. Horri gehitu behar zaio mendekotasun-tasaren igoera, eta horrek esan nahi du pertsonen zaintzarako eskaera handia egongo dela.



Atzerritar gutxiago (%6,8), Espainiako kopuruaren aldean (%11,8). 2013an jaitsi da kopurua.

Gaur egungo gizartean, **etxebizitza** lortzea ezinbestekoa da emantzipaziorako, egonkortasuna eta gizarteratzea lortzeko. Euskadin, familiek etxebizitzan egiten duten gastuak gehiengo onargarria gainditzen du (diru-sarreraren %30). Gainera, azken urteetan familia bakoitzeko batez besteko gastua nabarmen hazi da. Hezkuntza eta osasun arloko gastua ere hazi da.

Gráfico 1.7. Estructura gasto por grupo de gasto en el País Vasco y España. Año 2013



Herritarren egoera okupazionalari eta enpleguari dagokionez, langabezia orokorraren eta gazteen langabezia tasak etengabe hazten ari dira, 2013an baino are gehiago. Era berean, 55 urtetik gorako pertsonen langabezia tasa ere asko hazi da 2008tik. Gure lana iraupen luzeko langabeen hazkundean zentratu behar da; izan ere, ondorioak oso negatiboak izango dira, gizarte-baliabideen agortzearekin lotuta.

Errenta-maila antzekoekin, Euskadin Espainiako gainerako lekuetan baino pobrezia eta gizarte-bazterkeria arrisku txikiagoa dago.

Hala ere, elementu batzuek modu bidezkoagoan identifikatzen dituzte euskal gizartearen babesgabetasun eremuak. Honako hauek dira: Batetik, pobrezia edo gizarte-bazterkeria tasa apur bat murriztea eta pobrezia-tasa murriztea; baina bestetik, familien lan-jarduera are gehiago jaitea, eta gabezia materialaren egoera latzak areagotzea, Espainiako gainerako lekuetakoen parera hurbilduz. Gainera, hilabetea pasatzeko zailtasunak dituen jende gehiago dago, batez ere zailtasun handiak dituztela diotenak.

Gizarteratzea Euskadin:

Euskal herritarrei gehien eragiten dieten bazterkeria arazoak lana, etxebizitza eta osasunarekin erlazionatutakoak dira.

Gizarte-bazterkeria arrisku handiagoa duten profilak

Iraupen luzeko langabeziak eta EB15etik kanpoko nazionalitatea izateak bazterkeria-arriskua 2,5 aldiz handiagoa izatea eragiten du eta lan irregularra izateak gizarte-bazterkeria tasa bikoizten du Euskadiko herritarren artean. Ezaugarri horiek bazterkeria arriskua handitzen dute Euskadiko etxeetan, eta beste ezaugarri hauekin batera, gizarte-bazterkeria arrisku handienean dauden familien profila osatzen da: lan-jarduera gutxiko familiak (%53), guraso bakarreko familia handituak (%36), urritasuna duen pertsonaren bat dauden familiak (%28) eta auzo marjinal edo kaltetuetan bizi direnak (%27).

Zailtasunak ardatz ekonomikoan

Ekonomia arloan, langabeziak, egoeraren luzapenak eta prestakuntza-aukera ezak bazterkeria areagotu dute, eta egoera horrek Euskadiko etxe askori eragin die.

Lan-ezegonkortasuna arrisku-faktore argia da herritar guztien gizarte parte-hartzeari dagokionean, are argiagoa arduraduna emakumea den etxeetan.

Ikasketa mailak eragina dauka lana topatzeko aukeran, baita integrazio-bidean jarraitzeko edo hortik irteteko aukeretan ere. Zenbat eta ikasketa maila altuagoa, orduan eta txikiagoa da gizarte bazterkeria pairatzeko aukera, eta, beraz, egonkorragoa da gizarteratze-egoera.

Derrigorrezko hezkuntzatik harago doazen ikasketak burutzeak lana izateko aukerak hirukoizten ditu gaur egun. Lan eskaintzen eskasiak eta prestakuntza-aukera irisgarrien ezak eragina izan dezakete errealitate honetan eta prestakuntza demobilizazioa eragin. Horrek, beraz, ondorio negatiboagoa du ikasketa gutxien daukan herritarren artean.

Zailtasunak ardatz politikoan eta herritarren artean

Euskal herritarren herenak elkarte, sindikatu, alderdi politiko eta bestelako erakunde eta kolektibo sozialen bitartez parte hartzen du gizartean. Integratutako herritarrek gehiago parte hartzen dute elkarte-jardueretan eta manifestazio, protesta edo ekintza kolektiboetan.

Etxebizitza-bazterkeriari dagokionez, etxebizitzaren irisgarritasun, ezegokitasun, bizigarritasun eta ezegonkortasuna hartzen dira kontuan. Oro har, pertsonen %28,1ek pairatzen du faktore horietako baten eragina. Pobrezia ekonomikoa, lan-jarduerarekiko harremana eta sustengatzaile nagusiaren nazionalitatea dira etxebizitza-adierazleetan eragin handiena duten ezaugarriak.


Etxebizitza-bazterkeriak, gainera, beste adierazpen batzuk ere baditu, izan ere, etxebizitzaren zati handi batean neurri konpentsatzaileak hartu behar izan dira zailtasun ekonomikoek eragindako etxebizitza-arazoei aurre egiteko. Etxe askotan gastu finkoak murriztu behar izan dituzte, baita telefono, telebista eta interneten gastuak ere. Beste batzuetan ezin omen dute etxea tenperatura egokian mantendu edo ezin diete zordunketei aurre egin eta, beraz, zerbitzu horiek eskuratu ezin izateko arriskua dute.

Euskadin, ia 10 pertsonatik 2 osasun-bazterkeria egoeran daude. Datu hori gabezia egoera bitan islatzen da: etxeen %9,1etan ezin dute osasuna zaintzeko beharrezko tratamenduak jaso eta familien %6,1ek zailtasunak dauzka elikadura nahikoa eta orekatua ziurtatzeko. Gainera, Euskadiko etxeen %13tan buruko nahasmendu edo depresioaren bat izan duen inor egon da azken 5 urteetan.

Arazo ekonomikoen ondorioz, pertsonen osasunean eragin zuzena duten arazoei aurre egitera behartuta daude familiak. 10 etxetatik 4tan elikadurara bideratutako gastuak murriztu behar izan dira, %8,4k ezin izan du astean 3tan proteinak jaterik berratu, etxeen %8,9tan ezin izan dute dieta egokirako beharrezko elikagairik eskuratu, familien %9,3k betaurrekoak eta %13,3k hortzeria behar izan dute eta ezin izan diete horien gastuei aurre egin.

Zailtasunak gizarte-harremanen ardatzean

Norbanakoaren eta familien gizarte babes pertsonentzako babes eta gizarteratze alderdirik garrantzitsuena da, bereziki zaurgarritasun edota bazterkeria egoeran dauden pertsonen dagokienean. Horiek horrela, bakarrik bizi diren pertsonen %6,4k ez dute alderdi horretaz baliazkerik. Pertsona horien hitzetan, ez dute gaixotasun edo zailtasun egoeretan zainduko dituen senide ez hurbileko pertsonarik.



Azpirarratzekoa da Euskadiko etxeetan, oro har, harremanak ugariak direla, hau da, familia-sarea, auzo-ingurua eta lagunartea oso garrantzitsuak direla. Hurbileko gizarte sarea sendo eta anitza da, eta krisiaren ondorioak leuntzen laguntzen du, pertsonentzako euskarri nagusi izanik. Oro har, 2013 urtean babeserako gizarte sare hurbil eta handia izan dute Euskadiko etxeetan. Hori bai, azpirarratu beharra dago laguntza jasotzeko gaitasun horrek behera egin duela. Orain arte pertsona dezente jaso dute laguntza eta gaur egun, ordea, kopuruak behera egin du.

Orokorrean, 10 etxetatik 7k jasotzen dute laguntza behar izaten dutenean. Portzentaje handi horrek erakusten digu oso aktiboa dela pertsona eta familien (sare informala)ren babes-estaldura eta elkartasuna.

Etxeetan laguntza behar denean, gizarte zerbitzuetara jotzen dute gehienek, gizarte erakundearen zerbitzuetara bigarren aukera gisa eta, gutxiagotan, Cáritasera. Euskadiko etxeen %3k Cáritasera jo dute laguntza bila, estatu mailan babes eskatu dutenen 3 ehuneko

gutxiagok. Hala ere, Euskadin estatu osoan baino pertsona gehiagok jotzen dute gizarte zerbitzu publikoetara (gizarteratuak zein ez gizarteratuak), eta, beraz, ondoriozta dezakegu euskal sistema publikoa irmoagoa dela eta gizarte sare alternatibo sendoa dugula.

PROPOSAMEN BATZUK:

Pobrezia eta gizarte-bazterkeria ez dira krisi kontuak.

'Gizarte eredia' birplanteatzeko beharra.

Gure gizarteari etikoki balio handiagoa emateko beharra.

1.- Gizarte eta pertsonen garapena ez da hazkunde ekonomikoa

- Gizarte garapenaren diagnostiko zehatza egiteko, ezberdintasuna, pobrezia, gizarte-bazterkeria eta material gabezia lehentasunezko adierazleak izatea.
- Ekintza politikoa ebaluatzea, adierazle horien gaineko inpaktua kontuan izanda eta egiazko garapenari laguntzen dioten politikei arreta berezia eskainita: Osasuna, hezkuntza, enplegua, aberastasunaren birbanaketa, diru-sarreraren bermea (pentsioak, gutxieneko errentak), ...

2.- Pobreziaren egitura-ondorioei aurre egitea

- Gizarte bazterkeria lurralde osoan oinarritzko estandarretara hel dadin lortzea eta «minimoen bermea» deritzon sistema mantendu eta sendotzea.
- Pertsonen sustapen eta ahalduntzea erraztuko duen gizarte babesaren garatzea, gizarte zerbitzu publikoak sendotzean oinarrituta, prestazio ekonomikoaren kudeaketara mugatu ez dadin.
- Europako batz bestekora hurbilduko gaituen birbanaketa konpromisoa eraikitzea. Zergak ezin dira ezinbesteko den gizarte kohesiotik kanpo utzi, arrisku kolektiboari aurre egiteko baliabide nahikoa edukitzea bermatu behar da. Herritar guztien ekarpenik gabe ezinezkoa da bidezko eta kalitatezko zerbitzu publikoen sistema mantentzea. Horretarako, ezinbestekoa da zergak ordaintzea, nor bere diru-sarrerara eta ondarearen arabera. Gure pedagogia fiskala hobetu behar dugu kontraesana desagerrarazteko, ezinezkoa baita ongizate sistemaren unibertsaltasuna oso positiboki baloratu baina, aldi berean, gero eta zerga gutxiago ordaindu nahi izatea.

3.- Ongizate komunaren aldeko apustu irmoa egiten duen gizartea

- Eskubide unibertsaletan oinarritutako gizartea eraikitzea, eta norbanakoaren pribilegioak alde batera uztea.
- Zaurgarritasun handiagoko egoeran dauden pertsonen lehentasuna ematea, hala Espainian nola atzerrian. Gizarte gastua «inbertsio sozial» gisa ulertzea, ezberdintasuna zuzentzeko eraginkorrak diren arloei lehentasuna emanda (osasuna, hezkuntza, pensioak eta gutxieneko errentak).
- Zerbitzu publikoak ahultzearen zein krisiaren eraginen ondorioz etxeek duten gainkarga desagerraraztea.
- Familia politika eraginkorrek ezartzea eta, besteak beste, etxean adingabeak edukitzeak dakarren arriskua orekatzeko nahikoa baliabidez hornitzea.

- Pobrezia belaunaldiz belaunaldi transmititzea saihestuko duen politika eraginkorra martxan jartzea; gaur egun ezkutuan dagoen arriskua da, baina etorkizunean larria izan daiteke.

Laburbilduz: Baztertuenei lehentasuna emango dien politika publikoen agenda berria

- Ekitatean oinarritutako erabaki politiko berriak hartzea (diseinua eta planifikazioa, aurrekontuak egokitzea...).
- Behartsuenen bizi baldintzak hobetuko dituzten neurri politikoei lehentasuna ematea.